



PRENTSA-OHARRA NOTA DE PRENSA

2026ko APIRILAK 17
17 de ABRIL de 2026

88. EUSKAL SOZIOMETROAREN EMAITZEN IRAKURKETA

2026ko lehen Euskal Soziometroa (88. zk.) egiteko, **3.030 inkesta** egin dira telefonoz —730 Araban, 1.315 Bizkaian eta 985 Gipuzkoan— **2026ko martxoaren 23tik 26ra** bitartean. Azterlanak herritarrek beren egoera pertsonala, Euskadiren eta Espainiako Estatuaren egoera, demokraziaren funtzionamendua eta nazioarteko testuingurua, arazo sozial eta pertsonal nagusiak eta, ohi bezala, euskal gizartearen jarrera eta balio politikoak nola baloratzen dituzten aztertzen du.

EGOERAREN BALORAZIOA

Euskadiko herritarrek 10etik 7ko batez bestekoarekin baloratzen dute beren **egoera pertsonala**; emaitza hori 2024an eta 2025ean bezala mantentzen da, eta balorazio hori neurtzen denetik mailarik altuena da. **Euskadiren egoeraren** balorazioa 6,1 puntukoa da, eta **Espainiako Estatuak**, berriz, gainditu gabe jarraitzen du 4,8 punturekin. Bestalde, urtebeterako aurreikuspenek okerrera egin dute eta, ohikoa ez bada ere, bai Euskadin bai Espainiako Estatuan herritarrek balorazio positiboagoa egiten dute orainari buruz etorkizun hurbilari buruz baino.

Demokraziaren funtzionamenduari dagokionez, Euskadin herritarren %62 oso edo nahiko pozik dago, eta %36, berriz, ez dago oso pozik edo ez dago batere pozik. Espainiar Estatuarekin alderatuta, Euskadiko herritarren gogobetetze-maila zertxobait txikiagoa da: %35 oso edo nahiko pozik dago, eta %63, gutxi edo batere pozik ez. Bi kasuetan balorazioak hobera egin du, 2023ko parametroetan kokatuz.

NAZIOARTEKO ETA EUROPAR BATASUNEN EGOERA

Nazioarteko gerren eta gatazken inguruko kezka-maila oso handia da Euskadiko herritarren artean. Oti 10era bitarteko eskala batean, batez besteko kezka 7,8 puntukoa da epe laburrerako ondorioei buruz galdetzen denean, eta 7,4 puntukoa hiru urte barru izan daitezkeen ondorioei buruz pentsatzean. Izan ere, herritarren %78k kezka handia adierazten du datozen hilabeteetan gerrek izan ditzaketean ondorioei buruz, eta %64k kezka horri eusten dio hiru urtera begira. Kezka hori gatazkek eragin ditzaketean ondorio negatiboan pertzepzioan oinarritzen da: %92k probablea edo oso probablea ikusten du prezioen igoera edo krisi ekonomikoa izatea. Gainera, %82ren ustez herrialdeen eta potentzia handien arteko harremanek okerrera egingo dute, eta %73k pentsatzen du gerrak eta gatazka militarrek zabaldu egingo direla.

Euskal herritarrek **nazioarteko eragile nagusiekiko duten sinpatia** aztertzen denean, 0-10 eskalan, Europar Batasunak (EB) balorazio altuena jasotzen du, 6 puntuko batez bestekoarekin, eta ondoren Txinak (4,6). Beste muturrean Ameriketako Estatu Batuak eta Errusia daude, 2,4 eta 2,6 punturekin, hurrenez hurren; biztanleriaren zati garrantzitsu batek bi potentziekiko inolako sinpatiarik ez duelako. Nolanahi ere, balorazioak orientazio ideologikoaren arabera aldatuak dira. EBk ez du gizartearen inongo sektoretan gaitzespen nabarmenik eragiten, nahiz eta desberdintasunak nabari diren: euren burua eskuindartzat duten pertsonen artean EBrekiko sinpatia handia da nagusi, eta ezkertiarizat identifikatzen direnen artean, berriz, ohikoagoa da erdibideko sinpatia. Ezkerraren eremuan, potentzia global handiekiko sinpatia txikia da nagusi, eta gaitzespen hori bereziki nabarmentzen da Ameriketako Estatu Batuen kasuan. Bestalde, Txinak —ez du gaitzespen nabarmenik sortzen, ez eta sinpatia-maila handirik ere— eta Errusiak —urruntze handiagoa eragiten du— hauek balorazio hobea dute gazteen artean.

Europar Batasunaren zereginari dagokionez, Euskadiko biztanleen %39k uste du EBk eskumen gehiago bereganatu beharko lituzkeela, eta iritzi hori ohikoagoa da 65 urtetik gorakoen eta atzerritarren artean. Bestalde, %30ek uste du egungo eskumenei eutsi beharko liekeela, eta %18k, berriz, eskumenak murriztu egin beharko lituzkeela —euren burua eskuindartzat dutenen artean ohikoagoa den jarrera—. **Euskadik EBn duen zereginari** dagokionez, herritar gehienek (%53) zeregin aktiboagoa eta eskumen gehiago izatearen alde egiten dute, eta iritzi hori bereziki hedatuta dago sentimendu abertzalea dutenen artean. Aitzitik, %28k egungo eginkizun eta eskumen berberak izatearen alde egiten du, eta biztanleriaren %10ak Euskadik Europako esparruan dituen eskumenak murriztearen aldeko iritzia du.

EUSKADIKO GIZARTE-ARAZO NAGUSIAK

Euskadin dauden **gizarte-arazo nagusien artean**, etxebizitza da gehien aipatzen den arazoa, biztanleriaren %57k aipatzen baitu. Gutxiagotan aipatzen dira lan-merkatuarekin (%47), osasungintzarekin (%26), arazo ekonomikoekin (%20), herritarren segurtasun ezarekin (%19) eta immigrazioarekin (%12) lotutako arazoak.

2025arekin alderatuta, etxebizitzarekiko, lan-merkatuarekiko eta arazo ekonomikoekiko kezkek gora egin dute, eta osasunarekiko, herritarren segurtasun ezarekiko eta immigrazioarekiko kezkek, berriz, behera.

Segurtasunaren pertzepzioari dagokionez, herritarren erdiek baino gehixeagok (%52) uste dute beren herria edo hiria nahiko segurua dela, eta beste heren batek erabat segurua dela. Beste muturrean, %13k uste du gehienbat ez dela segurua, eta %3k soilik uste du ez dela batere segurua. Segurtasun-gabeziaren sentsazioa handiagoa da hirietan eta eskuineko espektro ideologikoan kokatutako pertsonen artean; txikiagoa, aldiz, gazteen, 65 urtetik gorakoen eta herri txikietan bizi direnen artean. Bestalde, hiru pertsonatik bik uste dute **Euskadiko zerbitzu publikoak** nahiko onak direla, eta beste %15ek oso ontzat jotzen ditu. Kontrara, herritarren %16k uste du nahiko txarrak direla, eta %2k oso txarrak. Aurreko urteekin alderatuta, pandemiaren hasieran sortu ziren zerbitzu publikoen balorazio negatiboak murrizteko joera nabarmena da.

EGOERA PERTSONALA

Euskal herritarren eguneroko bizitzan gehien eragiten duten **arazo pertsonalei dagokienez**, ekonomiari (%29) eta lan-merkatuari lotutakoak (%26) nabarmentzen dira. Ondoren datoz etxebizitzarekin lotutakoak (%20), osasungintzarekin lotutakoak (%20) eta herritarren segurtasun ezarekin lotutakoak (%11). Etxebizitza eta herritarren segurtasun eza salbuetsiz, horiek behera egin baitute, gainerako arazoek gora egin dute 2025etik. Gizarte-arazoetan ez bezala, eremu pertsonalean heterogeneotasun handia ikusten da kolektibo desberdinetan. Bestalde, biztanleriaren %29k uste du jendeak bere interes pertsonalen alde egiten duela nagusiki, eta %22k besteei laguntzen saiatzen dela; herritarren %49k, berriz, bitarteko iritziak ditu. Atzeritarrak eta langabezia dauden pertsonak dira jendea besteei laguntzen saiatzen dela gehien esaten dutenak.

HERRITARREN JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

Euskadin, **politikarekiko interesak** goranzko joera du, eta maila gorenean jarraitzen du 1995ean neurtzen hasi zenetik: herritarren %48k dio interes handia edo nahikoa duela. Interes gutxi edo batere interesik ez dutenak baino zertxobait gutxiago dira horiek. Hauteskondeek duten eraginaz galdetuta, herritarrek adierazten dute Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde autonomikoak direla beren bizitzetan eragin handiena dutenak, udaletako edo hauteskunde orokorretako hauteskundeek gainetik —alde txikiarekin bada ere—. Gazteak dira kasu guztietan hauteskundeek garrantzi handiena ematen dietenak.

Sinpatia politikoari dagokionez, EAJk sinpatia-maila handiena bereganatzen du (10 puntutik 5); gertutik jarraitzen diote PSE-EE (4,5) eta EH Bilduk (4,3). Urrunago daude Sumar (3,5), PP (2,0) eta Vox (1,1). **Ezagutza-mailari dagokionez**, Imanol Pradales lehendakaria da lider ezagunena (%78), eta haren atzetik daude Eneko Andueza (%46), Pello Otxandiano (%45) eta Javier de Andrés (%40). Aldiz, Jon Hernández (%16) eta Amaia Martínez (%24) dira gutxien ezagutzen direnak. **Balorazioari dagokionez**, Imanol Pradales lehendakariak lortu du puntuaziorik onena (10etik 5,7), eta, ondoren, Pello Otxandiano (5,4). Atzetik daude Eneko Andueza (4,5), Jon Hernández (4,3), Amaia Martínez (3,2) eta Javier de Andrés (2,9). Lehendakariak, Otxandiano eta De Andresek bakarrik lortzen dute gaintitza euren hautesleen artean.

Ezker-eskuin ardatzean, euskal gizarteak ezkererantz jotzeko joera du, 4,3ko batez bestekoarekin, 0tik (ezker muturra) 10era (eskuin muturra) bitarteko eskala batean. Hala ere, herritarren %54 zentroko posizioetan kokatzen da —gazteen artean ez da hain ohikoa—, %29 ezkerrekin identifikatzen da eta %9 eskuinarekin.

Euskal nazionalismoaren eskalan, herritarren %32k oso abertzaletzat du bere burua; %24k, berriz, batere ez. %36k tarteko jarrera du. **Identitateari dagokionez**, herritarren %43 sentitzen dira soilik euskal herritar edo euskal herritar espainiar baino gehiago; beste %39 euskal herritar bezain espainiar, eta soilik %10ek du bere burua espainiartzat edo nagusiki espainiartzat. Azkenik, balizko **independentziari dagokionez**, aldekoen kopurua handitu egin da eta kontrako kopurua murriztu, nahiz eta gaitzespena oraindik ere garrantzitsua izan: gaur egun, %37 aurka dago, %24 alde eta %32k dio babesa eman diezaiokeela edo ez, egoeraren arabera.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Euskadin, 18 urtetik gorako herritarrei egindako 3.030 telefono-inkestak osatzen dute lagina. Lagin errorearen estimazioa $\pm 1,8$ da Euskadi osorako (konfiantza-maila = % 95,5; $p=q=0,5$)

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

<http://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak>